**2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

**Programa:** 10 ARABAKO PSISZREN KUDEAKETA ARAUTZEA

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019**

**Departamento:** 11 BOMBEROS FORALES DE ALAVA

**Programa:** 10 REGULACIÓN DE GESTIÓN DEL SPEIS DE ÁLAVA

## SAILAREN MEMORIA

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

2019an, erakundea lurralde historiko guztira hedatu da. 5 su itzaltze eta salbamenduko eskualde unitate (SISEU) daude jada lurraldean, bai eta Fernando Martínez de Ilarduya Suhiltzaileen Parke Zentrala ere. Unitate guztiak 24 orduz irekita daude.

Programa honetan hauei aurre egiteko kredituak jasotzen dira aurrekontuan: langile gastuak, gastu arruntak eta beste administrazio batzuei egindako ekarpenak foru eskumeneko zerbitzuak emateagatik. Horrez gain, inbertsio arruntetarako eta langileei aurrerakinak emateko kredituak ere jasotzen dira.

Diru sarrerak honako hauetatik datoz: Arabako Foru Aldundiak jasotzen dituen transferentzietatik, zerbitzua emateagatik ordaindu beharreko tasetatik, gure instalazioen erabilera partekatutik lortutako diru sarreretatik, beste administrazio batzuek beren eskumeneko zerbitzuak emateagatik egindako ekarpenetatik eta emandako aurrerakinak itzultzeagatik.

**1. Zerbitzua lurraldean hedatzea**

Esan dugunez, ekitaldi honetan egitura operatiboa finkatu da lurralde historiko guztian.

Aurten, 2018ko EPEa amaitu da, erakundeak bitartekotasuna murrizteko daukan konpromisoa finkatzeko.

Xede berarekin, barne sustapeneko bi prozesu egin dira:

- Kaboen barne sustapena.
- Ofizialordeen barne sustapena.

Hori guztia erakundea sortzeko foru arauak xedatutakoaren arabera egin zen.

### I. MEMORIA

Durante el ejercicio 2019 se ha consolidado el despliegue del Organismo en todo el Territorio Histórico. Se cuenta ya con 5 Unidades Comarcales de Extinción de Incendios y Salvamentos (UCEIS) a lo largo y ancho de la provincia y con el Parque Central de Bomberos Fernando Martínez de Ilarduya. Todas estas unidades realizan su función en horario de 24 horas.

En este programa se presupuestan los créditos para atender los gastos de personal, los gastos corrientes, las aportaciones a otras administraciones por la prestación de servicios de competencia foral, los destinados a inversiones ordinarias y a anticipos de personal.

Los ingresos provienen por las transferencias recibidas de la Diputación Foral de Álava, por las tasas por prestación del Servicio, por los ingresos obtenidos del uso compartido de nuestras instalaciones, por las aportaciones de otras administraciones por la prestación de servicios de su competencia y por el reintegro de anticipos concedidos.

**1. Despliegue del servicio por el Territorio.**

Como hemos indicado, este ejercicio ha supuesto la consolidación de la estructura operativa a lo largo de Territorio Histórico.

En este año, se ha finalizado la OPE del ejercicio 2018, para afianzar el compromiso del organismo en la reducción de la interinidad.

Con el mismo objetivo se han realizado dos procesos de promoción interna:

- Promoción interna cabos.
- Promoción interna suboficiales.

Todo lo anterior se realizó según lo regulado en la Norma Foral de creación del Organismo.

**2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

**Saila:** 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

**Programa:** 10 ARABAKO PSISZREN KUDEAKETA ARAUTZEA

Giza Baliabideen eta Administrazio Kudeaketaren Zerbitzuan, baliabide informatiko berriak sartu dira, erakundeko langileekiko eta hirugarrenekiko harremana modernizatu eta errazteko.

Hain zuzen ere, erakundearen erregistro elektronikoa kudeatzeko baliabide bat sartu da.

Bestalde, abian jarri da dokumentuen kudeaketa elektronikoko sistema bat, barne prozesuak erraztu, informazioa errazago lortu eta kudeaketaren gardentasuna areagotzen duena.

Ekitaldi honetan, Arabako Foru Suhiltzaileak erakundearen web berria martxan jarri da, eta han haren egoitza elektronikoa ere ageri da, eta horrek laguntzen du gure jarduera hobeto zabal dadin eta herritarrekin harreman hurbilagoa izan dezagun, eta, gainera, aukera ematen du espediente jakin batzuk elektronikoki izapidetzeko.

Ahalegin handia egin da langileak lanerako behar duten esku hartzeetako materialez eta arropaz hornitzeko. 2019an, autobeso artikulatua duen ibilgailu bat jarri da zerbitzura, eta lizitaziora atera da eskuratzea ur edukiontzi bat multilift-erako eta kabina bikoitzeiko ponba auto bat.

Zerbitzua kudeatzeko behar izan diren funtzionamendu gastu guztiak kontratatu dira: horniketak, aseguruak, mantentze lanak…

**2. Beste Administrazio batzuekiko lankidetza hitzarmenak.**

Parke guztiak 24 orduz irekitzearen eta parke zentrala abian jartzearen ondorioz, Gasteizko Udalaren esku hartzeen kopurua murriztu egin zen 2018an. Hori dela-eta erakunde autonomoak egiten duen ekarpena nabarmen murriztu zen; hau da, 450.000 euro ezarri zen 2018an, eta ekitaldi honetarako kopuru hori bera mantendu da.

Logroñoko eta Miranda Ebroko udalekin eta Errioxako Autonomia Erkidegoarekin egindako

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019**

**Departamento:** 11 BOMBEROS FORALES DE ALAVA

**Programa:** 10 REGULACIÓN DE GESTIÓN DEL SPEIS DE ÁLAVA

En el servicio de RRHH y gestión administrativa se ha avanzado en la introducción de nuevas herramientas informáticas para modernizar y simplificar el acceso y contacto con el personal del organismo y con terceros.

En concreto se ha introducido una herramienta para la gestión electrónica del registro del organismo.

Por otra parte, se ha puesto en marcha un sistema de gestión electrónica documental que simplifica los procesos internos, permite un mejor acceso a la información y aumenta la transparencia en la gestión.

En este ejercicio se ha puesto en marcha la nueva web de Arabako Foru Suhiltzaileak-Bomberos Forales de Álava, que también contiene la sede electrónica del mismo, lo que contribuye a la mejora en la difusión de nuestra actividad y permite un contacto más cercano con la ciudadanía al mismo tiempo que facilita la tramitación electrónica de determinados expedientes.

Se ha realizado un esfuerzo importante para dotar al personal del material de intervención y vestuario necesario para el ejercicio de sus cometidos. Durante el año 2019 ha entrado en servicio un vehículo autobrazo y se licitó la adquisición de un contenedor de agua para el multilift y una autobomba de doble cabina.

Se han contratado todos los gastos de funcionamiento precisos para la gestión del servicio: suministros, seguros, mantenimientos,...

**2. Convenios de Colaboración con otras Administraciones.**

Debido a la apertura de todos los parques a 24 horas de parques y con la entrada en funcionamiento del Parque Central, el número de intervenciones que realiza el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz se vió reducido en el 2018. Este hecho supuso una reducción considerable de la aportación que realiza el OA, que se fijó en 450.000 euros en 2018 y se ha mantenido también para este ejercicio.

Se abonaron las contraprestaciones derivadas de los

## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

**Programa:** 10 ARABAKO PSISZREN KUDEAKETA ARAUTZEA

hitzarmenetatik eratorritako ordainak ordaindu ziren. Lurralde horien mugakide diren Arabako eremuetan prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzua emateko egin ziren hitzarmen horiek.

Gainera, jarraipena eman zitzaion Nafarroako Foru Gobernuarekin bi lurraldeetan ematen den zerbitzuaren estaldura hobetzeko sinatutako hitzarmenari, bai eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundien arteko lankidetza hitzarmenei ere, zeinak baitira hiru lurralde historikoen zona mugakideetan aldundien prebentzio, su itzaltze eta salbamendu zerbitzuen esku hartzea eta mobilizazioa koordinatzeko.

Bestalde, zerbitzua eman da Trebiñuko enklabean eta Burgosko eremu mugakideetan.

2019ko ekitaldian lankidetzan jarraitu da Kanpezu - Arabako Mendialdeko zein Gaubeako herri babeseko boluntario taldeekin.

### II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Lehenengo helburua zerbitzua lurraldera hedatzea zen eta, zehazki, 24 orduz abian jartzea Agurain eta Kanpezuko SISEUak, eta martxan jartzea parke zentrala. Parke horiek 2018ko uztailaren 1ean ireki ziren, eta parke zentrala 2018ko apirilean inauguratu zen. 2019an, egitura hori finkatu da, eta ahalegin handia egin da egitura hori operatibo mantentzeko 24 ordu 365 egun.

Kontuan hartuta ezarritako helburua zela Araban su itzaltze, prebentzio eta salbamendu zerbitzua behar bezala ematea, helburua oso ondo betetzat jotzen da.

Bestalde, aurrerapausoak eman dira erakundeak bere eginkizunak egiteko, hura beharrezko materialez, ibilgailuz eta azpiegituraz hornitzeko. Horren harira, egokitzapen eta saneamenduko hainbat obra egin dira Laudioko SISEUn, eraikin berria altxatu arte.

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 11 BOMBEROS FORALES DE ALAVA

**Programa:** 10 REGULACIÓN DE GESTIÓN DEL SPEIS DE ÁLAVA

Convenios con los Ayuntamientos de Logroño y Miranda de Ebro, y con la Comunidad Autónoma de La Rioja para la prestación del Servicio de Prevención y Extinción de Incendios y Salvamento en las áreas alavesas limítrofes con sus territorios.

Además se continuó con el convenio con el Gobierno Foral de Navarra para la mejora de la cobertura del servicio en ambos territorios, y con los convenios de colaboración entre las Diputaciones Forales de Alava, Bizkaia y Guipuzkoa para coordinar la movilización e intervención de los respectivos servicios en las zonas limítrofes de los tres territorios históricos.

Por otro lado, se ha prestado el servicio en el enclave de Treviño y zonas limítrofes de Burgos.

Durante el ejercicio 2019 se ha seguido colaborando con las agrupaciones de voluntarios de protección civil tanto de Campezo-Montaña Alavesa y como de Valdegovía.

### II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

El primer objetivo consistía en la extensión del servicio al Territorio y en concreto a la puesta en servicio de la UCEIS de Salvatierra y Campezo a 24 horas, así como la puesta en servicio del Parque Central. La apertura de los citados parques se produjo el 1 de Julio de 2018 y la inauguración del parque central en el mes de Abril de 2018. Durante el ejercicio 2019 se ha consolidado esta estructura, realizando esfuerzos importantes para mantener operativa esta estructura durante 24 horas 365 días.

Teniendo en cuenta que el objetivo que se define es la correcta prestación del Servicio de Extinción y Prevención de Incendios y Salvamento en Álava, el cumplimiento del objetivo se considera muy satisfactorio.

Por otro lado, se ha avanzado en dotar al Organismo de los medios materiales, vehículos e infraestructuras necesarias para el desempeño de sus funciones. A este respecto, también se ha realizado diversas obras de adecuación y saneamiento en la UCEIS de Llodio hasta la contrucción del nuevo edificio.

## 2019RA LUZATUTAKO 2018KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 11 ARABAKO FORU SUHILTZAILEAK

**Programa:** 10 ARABAKO PSISZren KUDEAKETA ARAUTZEA

Bestalde, aipatutako administrazio mugakide horiekin lankidetza hitzarmenak izenpetu eta berritzearen bidez, zerbitzua behar besteko bermearekin eskaintzeko helburua bete da.

Kasuan kasuko enplegu eskaintzen deialdiak ebaztearen bitartez, izan txanda irekikoak izan barne sustapenekoak, bi helburu betetzen ari dira: erakunde barruan bitartekotasuna murriztea eta langileen sustapena erraztea.

Prebentzioaren aletik, prebentzioko bi kanpaina egin dira. Arabako Lurralde Historikoko suteen prebentzioaren eta suteak itzaltzearen arloan, prebentzio astea antolatzen jarraitu da, eta herritar asko joan da eta askok parte harte hartu du. Orobat, bisitak egin dira lantokietara, adinekoen egoitzetara, ikastetxeetara, lantegietara…

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2018 PRORROGADO PARA 2019

**Departamento:** 11 BOMBEROS FORALES DE ALAVA

**Programa:** 10 REGULACIÓN DE GESTIÓN DEL SPEIS DE ÁLAVA

Por otro lado, a través de la suscripción y renovación de los citados convenios de colaboración con otras administraciones limítrofes, se alcanzado el objetico de garantía en la prestación del servicio.

A través de la resolución de las correspondientes convocatorias de empleo, tanto por turno libre, como por promoción interna, se está cumpliendo el objetivo de reducir la interinidad dentro del Organismo y de facilitar la promoción del personal.

En la vertiente de prevención, se han desarrollado sendas campañas de prevención. Se ha continuado con la organización de  la semana de la prevención en materia de prevención y extinción de incendios en el Territorio Histórico de Álava, con un gran éxito de afluencia y participación ciudadana. También se han realizado numerosas visitas a centros de trabajo, residencias de ancianos, centros escolares, talleres…